

PRESOEN OMENEZ

ETA-KO MILITANTE OHI BATEN AZALETIK IDATZI DU TXILLARDEGIK
'LABARTZARI AGUR' NOBELA POLITIKOA. NEGOZIAZIO GIROAN KOKATURIK,
IDAZLEAREN KEZKA EXISTENTZIALISTAZ ZIPRIZTINDUA DAGO ELEBERRIA

AINARA GOROSTITZU - DONOSTIA


Joxe Azurmendik aurkeztu du Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik*-ren (Donostia, 1929) *Labartzari agur* eleberria (Elkar), «ohorezko idazle batek ohorezko aurkezlea behar duelako». Xabier Mendiguren Elizegi editorearen hitzetan. «Presoei omenaldi bat eta preso baten nobela da liburu hau. ETAKo militante ohi baten nobela humanoa», Azurmendiren arabera.

Nobela politiko hau idazteko, *Labartza* kostaldeko herria sortu du Txillardegik, eta Antton Ihartzegarai protagonista. 17 urtez espetxean egon ondoren Valcorneja de Cepedillako espetxea utzi duen pertsonaia da Ihartzegarai. Egilearen beraren antz handia duena, musikazalea, euskal filologian eta toponimian interesatua eta historia irakur zalea.

Kartzela utzi eta herrira itzultzean, Ihartzegarai Euskal Herria nola ikusten duen kontatzen du nobelak. «Bai Euskal Herri fisikoa, herria, labarrak, hondartzak, azoka, Ernioiko erromeria... Txillardegik bera exilioan 16 urtean egon eta gero etorri zenekoaren isla izan daitekeena. Eta baita Euskal Herri politikoa ere: preso ohiak ezagutzen ez dituen gazteak, kultur etxeak...»

2000. urtean dago kokatua nobela, «negoziazio giroan. Protagonistak kide izan zitzaizkeen lagun politikoak negoziatioaren bidetik sartuak dira, hau da, errealismoaren bidetik, eta bera idealismoaren bidetik dator, eta kartzelatik. Beraz, errealismo berriak lekuz kanpo uzten du protagonista; ez-lekuan dago. Kritiko ikusten du giro politikoa Ihartzegarai». Txillardegik gaur eguneko bezalaxe: «Memento honetan badirudi Madrilen PSOErekin gauzak ez direla Aznarrekin ziren bezala, badirudi Zapaterorekin esperantza izan daitekeela. Hemen oso optimismo handia dago, baina Espainia betikoa dugu, eta gauzak oso zail ditugu; politika egiten saiatuko gara, baina esperantza handirik gabe».

Txillardegik kartzelan 17 urte egin zituen Torre Altonaga mungiar adiskidea izan du erreferentziatako bat Ihartzegarai buruz idazteko. Egilea ere, luzarorako izan ez arren, hiru aldiz eraman zuten kartzelara.



TXILLARDEGIK *Labartza* herrian kokatu du Antton Ihartzegarai protagonista. MARGO UTZU - ARGIAKOPRESS

1950ean eta 1960an Martutenera eta 1980an Langraizera.

Txillardegiren gogoetak, Ihartzegarairen ahotan

Kontrabiografia eran kontatu du Txillardegik Antton Ihartzegarairen bizitza, atzekoz aurrera. Eta haren bizitzan «zedarri» izan diren bi amodio istorio garrantziaz berezia dute biografia horretan. Ez batek, bi amodio istorio: «Sinbolismoagatik dira bi: bata harreman sexuala ezagutzen ez duen amodioa da; eta bestea, ezagutu ondorenekoa, heldutasuneko».

Atzera begirako oroitzapen horiez gain, «Txillardegiren biografian eta obran agertzen diren gogoeta gaiak» irakur daitezke honetan ere, Azurmendik aurreratutakoen. «Kosmos azken gabearren zirrara, guztiaren hilkorotasuna, hil beharra, bizitzaren ez deusaren meditazio budista — eta ez hain budista —, Epicteto, Marco Aurelio eta erreialismo estoikoa, erreialismo metafisiko eta kosmikoa...»

Txillardegik berak bezala, existentzialismoa du gogoetagai nagusi Ihartzegarai. Normala iruditzen zaio egileari ETAKo militante ohi batek halako kezka edukitzea. «Esaten denaren kontra, nik ezagututako ETAKo jende asko eta asko oso kezka handiko jendea da, sintomatikoa da; Alvarez Santacristina *Txelis* eta Sarrionandia hor ditugu».

Baina Txillardegik dio existentzialismoa ez dagoela modan, «existentzialismoa ez, baina kezka existentzialistak bai, erabat, eta beti egon dira modan: antropologok diotenez, badirudi Neanderthal gizonak ere bazeuzkala heriotzaren inguruko erritoko, eta zer esanik ez, Cro-Magnondarrok betidanik; gure zibilizazioa da, beharbada, kezka existentzialistak disimulatzen dituen bakarra».

Egilearen zazpigarren nobela honen idazkerak «bizitasuna» du ezagarrri, Azurmendiren hitzetan. Eta elkarriketak bizkaieraz daude idatziak. Liburu hau, dena den, ez du azkena izango, sei saiakera ari baita prestatzen egilea. Bi astronomiaz eta kosmologiaz; bat erlatibitateaz; beste bat eboluzioaz eta antropoidez; bosgarrena erlijioaz eta antropozentrismoaz eta seigarrena Sarrteri buruz.

PROTAGONISTA

«Esaten denaren kontra, nik ezagututako ETAKo jende asko kezka handiko jendea da»

EXISTENTZIALISMOA

«Gure zibilizazioa da kezka existentzialistak disimulatzen dituen bakarra»

GIRO POLITIKOA

«Hemen optimismo handia dago, baina Espainia betikoa dugu; gauzak oso zail ditugu»